



Usurbilgo Udala

2022KO APIRILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Luken Arkarazo Silva, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko apirilaren 28an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2022KO MARTXOAREN 17KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko martxoaren 17ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 22RA (2022/354-2022/438).



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2022ko martxoaren 28tik apirilaren 22ra bitartean (2022/354-2022/438) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak Xabier Olano kontuhartzaileari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.

Kontuhartzaileak adierazi du aurrekontuaren likidazioaren berri Foru Ogasunari eta Udalbatzari ematen zaiola. Hasiera batean dekretua, exekuzioaren laukia eta txostena aipatuko dituela esan du.

Likidazioaren dekretua alkateak martxoaren amaierarako onartu behar izaten duela eta apirilaren erdi alderako Foru Ogasunera bidali behar izaten dela zehaztu du. Oraingoan likidazioa martxoaren 28an itxi zutela eta ondoren apirilaren 5ean Foru Ogasunari jakinarazi zitzaiola esan du.

Likidazioak jasotzen dituela dio urte amaieran kajan zenbat diru dagoen, asko esan du 3,3 milioi euro, eta horri gehitu behar zaizkiola esan du kobratu gabe daudenak eta kendu ordaindu gabe daudenak. Guzti horrek eramaten dituela dio diruzaintzako gerakin teorikora, hau da, 6,9 milioi eurora, eta hori asko dela esan du, azken urteetako gehiena. Baina kopuru hori dena ez dagoela erabilgarri esan du, hortik zuhurtziazko doikuntza batzuk egin behar izaten direla dio. Lehena saldo kobragaitzei buruzkoa eta saldo kobragaitzei buruz egiten den estimazioa 2 milioi pasa ingurukoa dela zehaztu du. Bigarrena, berriz, finantzaketa lotua edo gehiegizko finantzaketa izango litzatekeela dio, hau da, zenbait proiektu martxan jarrita daudenak baina oraindik osorik exekutatu gabe daudenak eta, aldiz, horien finantziazioa jasoa edo hitzartua dagoena. Azken kasu honetan nagusiki Txirikorda dagoela zehaztu du. Guzti honek eramaten dituztela esan du gastu orokorreko diruzaintzako gerakina 2,3 milioi euro izatera. Hala ere, azken kopuru horretan ajuste gehiago ere egin behar direla esan du, tartean 2021ean martxan jarrita dauden inbertsioak, ja egiten ari direnak eta 2021 amaitu zenean itxi gabe zeudenak.

Dekretuarekin jarraituz aurrekontu emaitza aipatzen dela eta horri teknikariek ez diela garrantzi berezirik ematen esan du, baldin eta ez badago defizitik edota izurgarritzko superabita ere.

Ondoren, txertatu daitezkeen kreditu gerakinak aipatzen direla esan du. Hauek direla esan du exekuzioa hasita dagoena, A edo D fasean, baina hurrengo fasetara pasa ez direnak. Kasu honetan, aurrekontuari 3.269.000 euro txertatu zaizkiola esan du eta hauek zertarako erabiliko diren zehaztu du, batzuk lehen aipatu duen finantzaketa lotua dutenak 2,5 milioi, horren kasu garbia Txirikorda dela dio, baina beste batzuk ere aipatu ditu Pelaiouenea eta Sutegi, hain zuzen ere.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak galdetu du ea azkenak aipatu dituen horiek txertatu daitezkeen kredituen barruan dauden.

Kontuhartzaileak erantzun dio baietz eta zehaztu du lehendik datozen kreditu guztiak 4,5 milioi direla, baina horietatik 700.000 euro direla txertatu ezin direnak edo aspalditik datozenak. Teorian urte batean bakarrik txertatu daitezkeela zehaztu du, ez baldin badago arrazoi justifikaturik behintzat, Agerreazpikoa kasu.

Josune Urkolak esan du kontuhartzaileak aipatu duen Agerreazpikoa badoala ja urte batzutan. Hor 500.000 euro hipotekatzen direla eta hori diru asko dela uste du. Irtenbide bat eman beharko zaiola gaineratu du.

Alkateak erantzun dio kontuhartzailearen zuhurtzia printzipioari jarraituz gutxienez behin betiko onespena eman arte izan beharko duela.

Kontuhartzaileak zehaztu du diru hori Udalarentzat ez dela libre dispoziziokoa, ezin duela nahi bezala erabili. Garai batean enpresa batzuk Agerreazpiko zubia egiteko jarritako dirua dela esan du. Orain indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera, zubi hori egin egingo da, beraz, hori horrela den bitartean teknikoki oso garbi dagoela esan du diru hori ezin dela beste ezertarako erabili.

Josune Urkolak galdetu du ea modu bakarra den Arauak aldatzea.

Kontuhartzaileak erantzun dio modu bakarra dela Udalak bere buruari ezarri dion obligazio hori desagertzea.

Alkateak adierazi du Udal bezala oso gustora hartuko lituzketela 520.000 euro horiek proiektuak egiteko, baina zuhurtziaz eta arduraz jokatuta gaur gaurkoz ezin dela erabili dio. Hala ere, ez hain denbora urrunean erabilgarri egoteko moduan izango dela espero du eta momentu horretan egongo den udal gobernuak gustora erabiliko duela.

Kontuhartzaileak azpimarratu du ez dutela ahaztu behar diru publikoa dela, bere garaian udalaz kanpoko eragile batzuk diru hori jarri zutela helburu zehatz batekin eta printzipioz helburu hori desagertzen ez den bitartean horretarako gorde behar dela.

Josune Urkolak adierazi du diru hori bere garaian erabili zela.



Usurbilgo Udala

Kontuhartzaileak esan du erabili zela, baina kriterio egokiarekin berriz berreskuratu zela eta hortarako gorde zela.

Kontuhartzaileak, bere azalpenekin jarraituz, exekuzioari buruz adierazi du eskuartean duten lauki berdean aurkeztu dutela. Exekuzioa dela dio aurrekontua zenbateraino bete den, bai sarreretan bai gastuetan. Hasierako aurrekontua hartzen badute kontuan, 12,9 milioitakoa, aurrekontua nahiko era txukunean bete dela esan du. Sarreretan %2 gehiago, beraz, osorik exekutatu dela azpimarratu du, batez ere, transferentzia arruntak eta tasak %100 pasa dutelako. Gastuetan aldiz ez hain ondo, hasierako aurrekontua erreferentzi bezala hartuta, osotara %85,9 bete direla esan du, gastu batzuetan askoz gehiago, pertsonal gastuen %95, gastu korrontearen %95, baina inbertsioetan %59 besterik ez.

Aldiz, erreferentzia bezala hasierako aurrekontua hartu beharrean kontuan hartzen badute hasierako aurrekontua gehi txertatu dituzten inbertsioak, hor oraindik exekuzioa bai sarreretan eta bai gastuetan apalagoak direla esan du, sarreraren kasuan %85 eta gastuen kasuan %71 bakarrik. Gastu horien barruan zuzenki inbertsioetara joanez gero, %30a bakarrik exekutatu dela esan du.

Honen esplikazio bila joanez gero, esplikazio nagusia dela dio behin eta berriz errepikatzen ari diren Txirikorda. Txirikordan kredituetan 2 milioi dituztela esan du gordeak, baina horietatik obligazio onartuetara 100.000 euro besterik ez direla iritsi zehaztu du. Beraz, inbertsioetan ja 1,9 milioiko ez betetzea edo exekuzioa bere amaierara ez dela iritsi eta horrek pisu nabarmena duela azpimarratu du.

Josune Urkolak esan du kontuhartzaileak egin duen irakurketa hasierako aurrekontuarekin izan dela.

Kontuhartzaileak erantzun dio berak biekin egin duela eta horrela egin behar dela uste du, horrela eginda informazio osoagoa ematen baita.

Josune Urkolak uste du behin betikoarekin egin beharko litzatekeela, horrekin funtzionatzen hasten baita Udala. Inbertsioetan %30eko exekuzio maila behin betiko aurrekontuarekin dela baina ez dela aurtengo kontua dio. Aurten Txirikordagatik izan dela baina aurreko urteetan zergatik galdetzen du.

Alkateak zehaztu du dauden inbertsioen kopuruak milioika eurotako inbertsioak direla eta halako inbertsio bat urte berean exekutatu, obrak lizitatu, obrak egin eta obrak ordaindu, hori dena urte berean ez dela inoiz ematen. Azken urte hauetan hain justu ere dimentsio handiko obrak izan dituztela azpimarratu du, Txirikorda eta Zumarte aipatu ditu. Hori horrela, Josunek adierazi nahi duena bada inbertsioen gauzatze maila txiki bat, hori ez dela erreala esan du.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak adierazi du bere ustez urtean urtean egingo dena jaso behar da, eta beste guztiarekin kreditu konpromisoak hartu. Zeren egiten den moduan kontuhartzaileak hasieran aipatu dituen zenbaki horiekin gerakina hasieran ateratzen da ia 7 milioikoa baina gero ajuste guzti horiek egin behar zaizkio, azkenean 2,3 milioirekin geratuz, baina beste 2,5 milioi finantzaketa lotuarekin.

Azken batean 13 milioiko aurrekontu batean 7 milioiko gerakina eskandalagarria dela azpimarratu du.

Kontuhartzaileak erantzun dio gauzak ez direla kapritxo egiten. Zuhurtziazko doiketa hori ez balute egingo, imajinatzeko dio Txirikordan bihar kontratistak esaten duela "ez zait rentable eta banao", eta hor teoriarik Udalak errekonozitu dituen eta eskubide bezala dituen diru batzuk desagertu egingo lirakeela esan du. Jaso dugun dirulaguntza horretarako erabili behar dute, ez beste ezertarako, horko kontratistak hitzarmen baten bidez dirutza bat eman dio Udalari eta hori baita ere horretarako erabili behar dute. Beraz, doiketa horiek egitea ezinbestekoa dela iritzi dio.

Inbertsioaren exekuzioari buruz, kontuhartzaileak esan du zenbakiak beti direla erlatiboak, bakoitzak nahi duen bezala irakurri ditzakeela. Hasierako aurrekontua ia 13 milioikoa da eta gero kreditu txertakuntzarekin ia 15 milioitan geratzen da. VI. Kapituluak, inbertsioena, ia 5 milioi dela zehaztu du eta jakinarazi du Sarekok atal berezi bat daukala Gipuzkoako udal guztietan erabiltzen dena eta txostena inbertsioen jarraipen zehatz bat egiteko dela. Jarraipen zehatz horretan faseak desberdintzen direla aipatu du.

Fase horiei erreparatuz, 5 milioi horietatik jada martxan jarrita daudela esan du 4,6 milioi, beraz, %96a A fasean daudela zehaztu du. Oraindik obra zertifikazioetara ez dela iritsi baina A eskatuta eta exekuzioa martxan dagoela azpimarratu du. Eta horietatik adjudikatuta %76a daudela esan du. Beraz, kontuhartzailearen ustez egokiagoa litzatekeela dio exekuzioa fase bakoitzean kontsideratzea.

Josune Urkolak zehaztu du A fasetik O fasera tarte bat badagoela, azkenean, A fasea dela dio konpromisoa hartzen duzula, lehen berak aipatu duena.

Kontuhartzaileak erantzun dio konpromisoa hartzen duzula diru hori horretarako erreserbatzen duzula eta lizitazioa martxan jartzen duzula. Lizitazioa martxan jartzeko derrigorrezkoa dela esan du A bat eginda egotea.

Taula dela esan dute benetan erakusten duena obren eta inbertsioen egoera zein den.

Kontuhartzaileak jarraitu du esanez iruditzen zaiela ohikoa dela Usurbil bezalako 12 milioiko aurrekontua duen udal batek urtero 2 milioiko inbertsioen lizitazioak martxan jartzea, eta hori bere ustez oso apartekoa dela gaineratu du.



Usurbilgo Udala

Argazki osoarekin bukatzeko, kontuhartzaileak esan du behin remanentea nola geratzen den esanda, exekuzioari buruz bere iritzia emanda, badagoela dio beste elementu bat inportantea dena eta azken txostenean aipatzen duena, finantzen iraunkortasuna eta zor biziaren maila, hain zuzen ere. Udalaren zorpetze maila, zor biziaren maila %11,83an dagoela zehaztu du, 2021eko abenduaren azkenean. 2022rako onartu duten aurrekontuan milioi bateko mailegua dagoenez %19 ingurura igoko dela aurreikusten du, legealdi hasieran zegoenaren antzera. Edozein modutara, Usurbil bezalako herri batean zorpetze maila %10-20 tartean dagoen bitartean ondo dagoela uste du, kontuan hartuta gainera arauak %75era arteko zorpetze maila baimentzen duenean.

Josune Urkolak esan lehen aipatu dituzten kreditu gerakinetan, 13. puntuan 11-12 orrialdeetan, hor ikusten direla txertatu daitezkeen kredituak eta txertatu ezin direnak, bertan kontuhartzaileak zerrendatu egiten dituela zehaztu du. Bertan, Agerreazpiko partidak hiru bakarrik agertzen direla dio eta berez lau direla.

Kontuhartzaileak erantzun dio bai lau direla.

Ondoren, Josune Urkolak galdetu dio txertatu ezin diren partidak zeintzuk diren.

Kontuhartzaileak erantzun dio Sarekok txosten honetan automatikoki ateratzen dituela kredituak eta egoerak, bertan A, B, C, D eta E egoerak aipatzen direla dio eta horietan zeintzuk ez diren txertagarriak.

Josune Urkolak esan dio bere ustez 12. orriko taulan agertzen diren kopuruak txertatu daitezkeenak direla, 3,7 milioi.

Zerrendan ea denak dauden galdetu dio, txertatu daitezkeenak eta ezin direnak txertatu.

Kontuhartzaileak erantzun dio lehen aipatu duen bezala txosten hau Sarekok automatikoki ematen duen txostena dela. Errepaso bat emango diola adierazi du.

Alkateak adierazi du berari ere taula hauek ondo ulertzea kosta egiten zaiola. Berarentzako datu inportante bat dela dio 2.331.000 euro dituztela erabilgarri gastu orokorretarako, baina horiei kentzen badie 2021ean martxan jarritako proiektu edo inbertsioetarako 800.000 euro, emaitza dela dio 1,5 milioi inguru geratzen zaiela erabilgarri 2022 urterako.

Beraz, kontuan hartuta 1,5 milioi horiek eta covid funtsetik datozen 207.000 euroak, udal gobernutik proposamen bat osatu dutela adierazi du 2022ko aurrekontuari beste milioi bat euro gehitzeko kreditu aldaketan bidez. Hurrengo Ogasun batzordean proposamen hori aurkezteko asmoa dutela gaineratu du, tartean aipatu ditu Etxealdiako aldapa irisgarri



Usurbilgo Udala

egiteko proiektua, Zumartegiko ibaiertza lehengoratzeko proiektua, Sutegiko liburutegiko hobekuntza proiektua eta Elutxeko oinezbidea egiteko proiektua. Gaineratu du ekarpenetara irekia izango den proposamena izango dela.

Beraien asmoa dela dio 2022an hiru kreditu aldaketa egitea, baina ez golpetik, hainbat proiektu orain zehazten ari direlako eta aurrekontu zehatza zein izango den ez dakitelako.

Aipatu duten bezala 1,5 milioi dituzte erabilgarri baina zuhurtziaz, ikusita ze ziurgabetasun egoera bizi duten, obra publikoak nola dauden, ikusten dute diru bat gorde egin beharko luketela, etorri daitezkeen garestitzei aurre egin ahal izateko, beraz, milioi bat euro inguru erabiltzeko asmoa dutela zehaztu du.

Kontuhartzaileak erabilgarri ez dauden gerakinei buruzko zehaztapenak eman ditu, lehen Josune Urkolak adierazitako galderari erantzunez, eta argi dagoela dio Agerreazpiko zubiarenak lau partida direla.

Batzarkideei 2021eko Aurrekontuaren likidazioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- 2022KO AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Kontuhartzaileak aipatu du taulan agertzen den moduan, hasierako aurrekontua 12,9 milioitakoa zela baina behin betikoa 16,3 milioitakoa eta horren zergatia dela dio txertatu behar ziren guztiak txertatuta daudelako. Inbertsioetan zehazki 3,1 milioi txertatu direla adierazi du.

Josune Urkolak galdetu du sarreretan aipatzen diren finantza aktiboetako 3,4 milioiak zer diren.

Kontuhartzaileak erantzun dio hori dela ja erabili dena, lehen aipatu duen 2,5 milioi finantzaketa lotua dutenak gehi inbertsioetako remanente orokorretik geratzen direnak.

Kontuhartzaileak aipatu du lehenengo hiruhileko aurrekontuaren exekuzioaz ari direla, apirilaren 20an itxi zutela eta Foru Aldundira apirilaren 22an bidali zutela.

Josune Urkolak galdetu dio taulan jasotzen diren exekuzio mailaren ehunekoak behin betiko aurrekontuarekikoak ote diren.

Kontuhartzaileak erantzun dio baietz, behin betiko aurrekontuarekikoak direla.



Usurbilgo Udala

Batzarkideei 2022ko Aurrekontuaren exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

5.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, arratsaldeko 18:55ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.